

18/02 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Juan Carlos Jauregui
Javier Laiseca
M^a Teresa Ojanguren
Mikel Pagola
Ismael Redondo
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko otsailaren 8ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoan sartzeko hautespen prozesurako, eta Kidego horietako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko deialdia egiten duen Agindu proiektuari buruz.

I. AURREKARIAK

Otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntzako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, bere 16. artikuluan dio lehiaketa-oposaketa izango dela karrerako irakasle funtzionarioak hautatzeko sistema eta lehenik deialdi publikoa egingo dela.

Otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren (*zeinaren bidez onartzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle kidegoetara sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko araudia eta zeinaren bidez arautzen baita aipatu legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena*) 3. artikulua dio administrazio publikoek, dagozkien enplegu eskaintzak onartu ostean, deialdiak egingo dituztela aipatu enplegu eskaintzetan baimendutako plazak hornitzeko, uneoro aplikatzekoak diren Funtzio Publikoko araei jarraiki.

Oraindik argitaratzeko dago Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2018ko enplegu eskaintza publikoa onartzen duen Agindua.

Sartzeko sistemei dagokienez, aplikatzekoak dira 276/2007 Errege Dekretuko III. eta IV. tituluetan jasotako xedapenak eta espezialitate berriak eskuratzeko prozedurari dagokionez, V. titulukoak.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, azken xedapen bat eta 9 eranskin ditu.

1. artikulua LEPerako deialdia egiten du; 2. artikulua espezialitate berriak eskuratzeko prozedurarako deialdia egiten du; eta 3. artikulua bi deialdien oinarriak onartzen ditu. Azken xedapena berraztertze errekurtsoei buruzkoa da.

9 eranskinetan jasotzen dira, hurrenez urren, merituen baremoa (I eta II), irakaskuntzarako titulu baliokideak (III eta IV), curriculumak (V), gai-multzoak (VI eta VII), proba praktikoaren ezaugarriak (VII), hautagaiak daukan titulazio akademikoaren eta eskuratu nahi duen espezialitatearen arteko konkordantziak (VIII) eta oposizio-faseko probak baloratzeko irizpideak (IX).

Oinarriak 3 titulutan antolatuta daude. Lehenengo tituluan (*I. Sartzeko prozedura*) alderdi hauek jaso dira: xedea, parte-hartze txandak, plazak eta aplikatzekoa den araudia.

Guztira 1.511 plaza eskainiko dira lehiaketan, espezialitatetan banatuta, eta guztiek izango dute HE2 hizkuntza-eskakizuna.

Hauek dira gainerako kapituluen tituluak:

2. Parte hartzeko baldintzak
3. Parte hartzeko eskaera eta dokumentazioa
4. Onartutako eta baztertutako hautagaiak
5. Hautaketa organoak
6. Oposaketa fasea
7. Lehiaketa fasea
8. Lehiaketa eta oposizio faseak gainditzea
9. Praktika fasea
10. Karrerako funtzionarioak
11. Ordezkapen zerrendetan sartzea

II. tituluan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura jasotzen da. (16-23 oinarriak)

III. titulua (24 oinarria) datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa da.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Agindu proiektu honek gehienbat jasotzen du 2016ko Bigarren hezkuntzako irakasleen kidegorako LEPea arautu zen edukia, baina, ikusi dugu zenbait aldaketa egin zaizkiola, eta, Kontseiluaren iritziz, baliagarriak izan dira deialdia hobetzeko:

Guztira 1.511 plaza eskainiko dira lehiaketan, 1.337 EAeko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegokoak eta 174 Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegokoak.

Horietatik 732 txanda librerako plazak izango dira, 108 ezgaitasunagatik erreserbatutako txandarako plazak, eta 671 beste irakaskuntza-kidego batera sartzeko prozedurarako plazak, goragoko sailkapen talde batera sartzeko direnak barne.

2012an egin zen etapa horietako irakasleentzako azken lan-eskaintza publikoa, non 36 plaza eskaini baitziren Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoentzat eta 328 plaza Bigarren Hezkuntzako Irakasleentzat; 2016ko deialdia Bigarren Hezkuntzako Kidegoentzat bakarrik izan zen eta 577 plaza eskaini ziren.

Jarraian aipatzen ditugu enplegu eskaintzen xedeari buruzko hainbat gogoeta eta ondoren arauaren artikuluen azterketa egin dugu.

A.- GOGOETA OROKORRAK

Hezkuntza-sistemaren helburua da bermatzea ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzen dutela eta, beraz, egiten den guztiak horretara bideratuta egon behar du.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegora eta LHko Irakasle Teknikoen kidegora sartzeko hautaketa-prozesuaren helburua da gaitasun profesional onenak dituztela frogatzen duten pertsonak hautatzea.

Irakasleak funtsezko pieza dira hezkuntza-sistemaren barruan. Horregatik, zorroztasun handiz hautatu behar dira, irakaskuntzarako gaitasunetan oinarrituta, hau da, kontuan hartuz badituztela ikasleek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, jarrerak eta trebeziak.

GAUR EGUN, irakaskuntza-gaitasunek bere baitan hartzen dituzte, batetik, arloari edo irakasgaiari buruzko ezagutza zientifikoa izatea eta ikasleen nahiz beren inguruneen ezaugarriak ezagutzea, eta bestetik, irakaslearen jarrerak eta konpromisoa: enpatia, erresilientzia, arazoak konpontzeko gaitasuna, oreka, sormena, malgutasuna, taldean lan egiteko gaitasuna, aldaketak eta berrikuntza onartzeko gaitasuna... Eta, azkenik, estrategiak menperatzea: ikasgela kudeatzea, aniztasunari arreta ematea, baloreetan hezte, teknologia berriak erabiltzea... Hori guztia beharrezkoa da ikasleek dauzkaten era guztietako premiei erantzuteko.

Sartzeko sistemak eta prozedura horretan egin behar diren probek ez dute bermatzen hautagaiak gaitasun horiek frogatuko dituenik, beraz, ezingo dira baloratu eta ezingo dira aukeratu irakaskuntzarako pertsona egokienak.

Gaur egungo sistemak ez digu uzten aurrera egiten gure gizarteak eskatzen duen kalitatezko euskal hezkuntza-sistema desburokratizatu eta berritzaile baterantz.

Kontseiluak ongi daki indarrean dagoen legeriak derrigortzen gaituela sistema hau aplikatzera, hala ere, uste du hezkuntza-administrazioak eta bere arduradunek eztabaida zabal eta sakona bultzatu behar luketela irakasleak hautatzeko alternatiba egokiagoei buruz, behar bezala erantzuteko hezkuntzak gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen erronkei.

B.- ARTIKULUEI BURUZKO OHARRAK

Hauek dira aurreko deialdiarekin (2015eko otsailaren 5eko Agindua) alderatuta sartu diren nobedadeak:

- 2.2.1.2 oinarria: LHko irakasle teknikoen kidegoan sartzeko baldintza espezifikoak.
- 2.4 oinarria: ezgaitasunagatiko txandarako eskakizunak, oinarri honen barruan sartzen delarik ezgaitasun iraunkorragatik erabateko graduarekin aitortutako pentsioa dutenen egoera...
- 44. oinarria: onartua izateko entregatu egin behar dira programazio didaktikoa eta hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria
- 5. oinarria: epaimahaiak osatzean kontuan hartuko da espezialitatearen printzipioa, hau da, kideen gehiengoak epaituko den espezialitateko titularrak izan behar du eta une horretan espezialitate horretan aritu behar du lanean.
- 5.4 oinarria: epaimahaien zozketan, 10 epaimahai edo gehiagoko espezialitateen kasuan, presidentea ez da epaimahai horietako kide izango, eta Hezkuntza sailburuak izendatuko du (5.3 oinarria).
- 5.9 oinarria: hautaketa-organoei laguntzeko koordinatzailearen figura sartzen da.
- 7.1.2.1. oinarria: gehiago zehazten dira programazioaren ezaugarri formalak, eta aipatzen da programazio didaktikoa ez dela baloratuko oinarrietan ezarritakoarekin bat ez badator.

- 7.3.1 oinarria: txanda librean eta ezgaitasunagatik erreserbatutako txandan sartzeko prozeduretan, beharrezkoa izango da A zatiaren kalifikazioa, eta puntuaketa xehetasun handiagoz banakatuko da.
- 8. oinarria: zehazten da noiz entregatu behar diren merituak, noiz izango den lehiaketa-fasea eta ofizioz baloratuko dela c espediente akademikoaren batez besteko nota, betiere langileen erregistroan badago.
- 11.5 oinarria: mugatu egiten dira praktika-fasean sartzeko atzerapena eskatzeko kasuak.
- 12.4 oinarria: deialdian bertan esaten da hautaketa-prozesuko espezialitateko postuetan egin beharko direla praktikak.
- VII. Eranskina: deialdian bertan zehazten dira oposizio-faseko praktiketako probaren ezaugarriak.
- IX. eranskina: epaimahaiek oposizio-faseko probak kalifikatzeko aplikatuko dituzten balorazio irizpideak argitaratzen dira.

Kontseiluaren iritziz, sartutako aldaketek hobetu eta arindu egiten dute prozedura.

Gainerakoari dagokionean, Kontseiluaren balorazio eta proposamenak jarraian adierazitako gaietan zentratu dira, oinarrietan agertzen diren hurrenkeran:

- **1.2 oinarria**

Kontseiluak balorazio positiboa egin du eskaintza berri horri buruz, eta, aurrekoetan bezala, Hezkuntza Sailari eskatzen dio jarrai dezala bide horretatik, bitartekotasun-portzentajea murriztu arte.

Hezkuntza Sailak emandako datuen arabera, etapa horietako irakasleen %33 inguru bitarteko postuetan dago. Portzentaje altua da, baina gure txostenetan adierazi izan dugun bezala, multzo horretatik ateratzen badira plantilla osagarriko postuak eta "ikastetxeak konfiguratu beharreko postuak", hau da, beren ezaugarriengatik plantilla organikoan sartu ezin direnak, nabarmen murriztuko litzateke portzentaje hori.

Horregatik, berriro dakargu gogora Kontseiluak 2012-2013ko txostenean egin zuen proposamena, zeinaren bidez eskatu baitzion Hezkuntza Sailari txosten bat egin zezala aztertzeko zeintzuk diren behin-behinekotasunaren arrazoiak eta ba ote dagoen premiarik irakasle berriak sartzeko sisteman; bide beretik, eskatu zion eskain ditzala konponbideak egonkortasuna hobetzeko eta irakasleen erreleboa planifikatzeko.

Bestalde, 2017an 874 irakasle erretiratu dira, eta ikusirik gure irakasleen adina, kopuru horrek gorantz jarraituko du datozen urteetan.

Horregatik, Kontseiluak planteatu du komenigarria dela Lan Eskaintza Publikoen deialdiak egiten jarraitzea, plantillen bitartekotasun indizeak ahalik eta gehien murrizteko, kontuan izanik, batetik, gero eta irakasle gehiago ordezkatu beharko direla, eta bestetik, irakasleek profil berriak behar dituztela.

- **3.1.1 oinarria**

Deialdiak aukera ematen die hautagaiei espezialitate bat baino gehiagotara aurkezteko, baina praktikan eskubide hori mugatzen du, aipatuz espezialitate desberdinetarako frogak batera deitu ahal izango direla.

Kontseiluak eskatzen du eskubide hori bermatzeko lehenago iragarri behar direla azterketen datak.

- **5.2.2 oinarria**

Epaimahaien osaeran ezartzen da kideak zozketa bidez izendatuko direla, titular kopuruaren ondorioz zozketarik egin ezin den espezialitateen kasuan izan ezik. Bestalde, seigarren paragrafoan dio gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu behar dela.

Kontseiluak uste du zozketa bidez zaila izango dela gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua bermatzea, salbu eta horretarako prozedura zehatz bat ezartzen ez bada. Bestalde, gizon eta emakumeen portzentajeak oso desberdinak dira espezialitatearen arabera, beraz, irizpideak ezin du berbera izan kasu guztietan.

Bestalde, zorroztasunez ebaluatuko bada, beharrezkoak dira irizpideak, prestakuntza espezifikoak eta esperientzia profesional baliozkotu eta aitortua duten pertsonak.

Kontseiluaren ustez ezin da zozketa baten esku utzi epaimahaiaren osaera, eta beharrezkoa da kideak aukeratzeko beste irizpide batzuk aurkitzea.

- **7.1.1 oinarria eta VII. eranskina**

Proba praktikoaren ezaugarriak 7.1.1.1 oinarrian eta VII. eranskinean daude jasota. Zabalik uzten da proba idatzizkoa ez izateko aukera.

Lan eskaintzei buruz egin dituen azken txostenetan, Kontseiluak eskatu du proba horien ezaugarriak zehaztu behar direla.

Oraingo idazkerak gehiago garatzen du zertan datzan modalitate desberdinetarako proba praktikoa, eta IX. eranskinean jasota daude berau baloratzeko irizpideak.

Hala ere, uste dugu proba praktikoak kasu zehatz bat izan behar duela ardatz, ikasgela kudeatzeko gaitasunei buruzkoa eta euskal hezkuntza-sistemaren baloreetan eta filosofian oinarritua: gizarteratzea, berdintasuna eta bikaintasuna. Aitzitik, ez lieke halako garrantzirik eman behar guztiz teorikoak diren gaiei eta espezialitatearen ezagutza akademikoari, espezifikoki jasotzen baitira lehen probaren B ataleko gaimultzoan.

Horregatik, aldaketa hauek proposatzen ditugu:

- Prestakuntza zientifikoari buruzko paragrafoak ezabatzea, uste dugulako beste probetan ebaluatzen dela.
- Alderdi hau gehitzea: ebaluazioa epaimahaiak eginiko errubrika batekin egingo da, bertan jasoko direlarik ebaluatu beharreko gaitasunen adierazleak.

Eranskinean atxikita dago idazkera proposamena.

• **7.1.2.3.B oinarria: unitate didaktiko bat prestatzea eta ahoz azaltzea**

Hautagaiaren esku-hartzea amaitutakoan, epaimahaiak posible izango du azalpenaren edukiari buruzko galderak egitea edo nola jokatu lukeen galdetzea, gehienez ere hamabost minutuz.

Kontseiluak proposatzen du galdera horien ordezkariak erdi-egituratu bat egitea, zeinak adituek eginiko gidoi bat eta ebaluaziorako errubrika bat izango baititu.

• **7.3.2 oinarria**

Oposizio-fasea 2018ko ekainetik aurrera hasiko dela adierazten da.

Egun horietan hasiko da epaimahaiaren lana ere, eta horrek eragin negatiboa izan dezake ikastetxeen dinamiketan, ikasturteko azken asteak direlako.

Horregatik, eta probak aldian behingoak direnez, Kontseiluak proposatzen du datak aztertzea eta egokiago batzuk aurkitzea, hezkuntza-komunitatearen lana ez oztopatzeko.

• **15 oinarria**

Proba biak ebaluazio positiboarekin gainditu arren plazarik eskuratu ez duten pertsonak ordezkari zerrendetan sartzeko eskubidea dutela jasotzen du. Halako kasuetan dauden pertsonak zerrenda batean egongo dira, hautaketa prozesuan eskuratutako azken puntuaketa arabera ordenatuta, eta, ondoren, hautaketa

prozesutik zetorren zerrenda bereizi horretako pertsonak zerrenda orokorrean sartuko dira, ordezkapenak egiteko hautagai zerrendaren urteroko birbarematze prozesuaren baitan.

Kontseiluak berriz dio urteroko birbarematze prozesuan kontuan har litekeela baita ere oposaketa-fasean eskuratutako puntuaketa, tituluaren espediente akademikoko batez besteko nota ere kontuan hartzen delako.

- **IX. kapitulua. Praktika fasea.**

Probetako 1 eta 2 faseez gain, funtsezkoa da praktika fasea ere, une horretan sartzen baitira irakaskuntzan, eta fase hori egokia da gaitasunak eta ikasgelan duten benetako aplikazioa ebaluatzeko.

Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen Ebazpen batek arautzen du fase horren garapena.

Kontseiluak uste du aurreko deialdietan argitaratutako Ebazpena oso egokia dela, eta ulertzen du oso garrantzitsua dela zorrotz aplikatzea. Horregatik eskatzen du jarraitu eta ebaluatu dadila zein neurritaraino betetzen den ebazpen hori.

- **IX. Eranskina:**

Deialdiaren eranskin honetan zehazten eta argitaratzen dira epaimahaiek oposizio-faseko probak kalifikatzeko aplikatuko dituzten balorazio irizpideak

Gure iritziz, oso positiboa da balorazio irizpideak deialdian argitaratzea. Hala ere, proba praktikoaren inguruan adierazitakoarekin bat etorriz, proposatzen dugu prestakuntza zientifikoari buruzko guztia ezabatzea.

Bestalde, uste dugu irizpideekin batera baita ere jaso beharko litzatekeela epaimahaiek eginiko edo haiei emandako errubrika, ebaluazioa gardena dela bermatzeko.

Idazkera hau proposatzen dugu:

“Epaimahaiko kide guztien irizpideak bateratzeko, eta ebaluazioa ahalik eta objektiboena izateko, errubrikak erabiliko dira ebaluatu nahi den gaitasun bakoitzerako.

Azkenik, indarrean dagoen hezkuntza araudiari eta beronen aplikazioari buruzko ezagutzaren irizpideari dagokionez, proposatzen dugu erreferentzia bat sar dadila hezkuntzak oinarritzat dauzkan filosofia inklusiboari eta baloreei buruz, horiek baitira irakaskuntza praktikaren oinarria.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.



Bilbon, 2018ko otsailaren 8an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA

VII. ERANSKINAREN proposamen alternatiboa

PROBA PRAKTIKOAREN EZAUGARRIAK

Hautaketa prozesuan garrantzi berezia eman behar zaio **irakaskuntza gaitasunari, hau da, ikasgela/ikastetxe testuinguru batean egoera-arazo errealak konpontzeko gaitasunari.**

Proba honen helburua da jakitea hautagaiek menperatzen dituzten Bigarren Hezkuntzako Kidegoko irakasleen edo Lanbide Heziketako Kidegoko Irakasle Teknikoen eskumenekoak diren etapa, maila eta espezialitateetan talde-ikasgela bat kudeatzeko eta ikasle guztiek arrakasta lortzeko beharrezkoak diren gaitasun teknikoak eta irakaskuntza-gaitasunak.

Hautagaiei kasu praktiko bat aurkeztuko zaie, beren espezialitateko gai-multzoari edota indarrean dauden curriculumei buruzkoa. Honakoak sar daitezke: arazo eta kasuak konpontzea, simulazioak, gaitasun teknikoak edo instrumentalak frogatzea edo egoera errealekin lotutako proiektu didaktiko zehatz bat formulatzea eta garatzea, benetako ikasgela edo ikastetxe batean praktikan jartzeko modukoa.

Proba praktikoan “hezkuntza esku-hartzearekin lotutako gai bat” landu beharko da. Bere baitan hartuko ditu: egoeraren diagnostikoa, eduki praktikoa curriculumean kokatzea, alde zuzenetik behar diren ezagutza edo gaitasunak, ikasgai/modulu horretako edo beste ikasgai/modulu batzuetako edukiekiko harremana, ikaskuntza-testuinguru zehatz baterako ekintza-proposamen baten plangintza eta diseinua, gizarteratze printzipioak aplikatzea eta ikasleen aniztasunari erantzutea, estrategia eta baliabide didaktikoak aukeratzea, teknologia berriak integratzea, gaitasun transbertsalak eta disziplinarrik edo kasu kasuko profil profesionalak berezkoak dituen gaitasun unitateekin lotutako gaitasun terminalak garatzea, curriculumaren dekretuan jasotako eredu pedagogikoa eta printzipio metodologikoak aplikatzea, indarrean dauden ekintza protokolo desberdinak erabiltzea, disziplina-artekotasuna, koordinazio didaktikoa, tutoretza-lanak egitea ikasleekin eta familiekin, hezkuntza- eta gizarte-agente anitzekin kolaboratzea, eskolako bizikidetzeta eta giroa, ikasleen eskubideak eta betebeharrak, hizkuntzen tratamendu integratua, hezkuntza premia bereziak lantzea, jarraipena eta ebaluazioa.

Proba horretan espezialitateko gai-multzoari edo curriculumei buruzko kontzeptuen aplikazio praktikoa egin beharko da, ingurune/ikasgela zehatz baten testuinguruan eta arazo konkretu batekin. Arazoa konpontzeko, kontuan hartu behar dira kasuari ongien egokitzen zaizkion hezkuntza-printzipioak eta irakaskuntza-

praktikak, indarrean dagoen araudia eta curriculumak errespetatuz eta irakaskuntzaren funtzio publikoa garatzeak berekin dakartzan legezko eginkizunak betez. Kasuaren ebaluazioa epaimahaiak eginiko errubrika batekin egingo da, bertan jasoko direlarik ebaluatu beharreko gaitasunen adierazleak.

Beharrezkoa izanez gero, epaimahai bakoitzak ariketa praktikoen garapenerako behar diren bitarteko teknikoaren, dokumentazioaren, materialaren eta alderdi zehatzen berri emango die hautagaiei.